

Indymedia Euskal Herria

Bost urteko media-aktibismoa

Euskal Herriko Indymedia Hedabide Independenteen Guneak bost urte bete ditu jada. Globalizazioa, okupazioa, ekologia, antimilitarismoa, euskara eta beste hainbat gizarte gai jorratzen dituen web guneak bizi-bizi jarraitzen du, proiektu horretan parte hartzen duen erabiltzaile kopuruak erakusten digun moduan.

JON TORNER

1999AN Nazioarteko Moneta Funtsak bilera egin zuen Seattle hirian (AEB). Globalizazioaren aurkako aktibista ugari bildu zen bertan eta euren arteko harremana sendotzeko, mobilizazioaren berri emateko eta informazioa zabaltzeko bulego bat zabaldu zuten. Hantxe hasi zuen bere ibilbidea lehenengo Indymediak. Dozenaka lagunek euren albiste, argazki eta bideoak sareratu zituzten bertan. Komunikabide erraldoiek eta gobernu-buruek eskaintzen ez zuten informazioa zabaldu zuen, eta oso denbora gutxian dezenteko oihartzuna lortu zuen. Apurka-apurka AEBetako beste hiri batzuetara zabaldu zen eta 2000. urtean, San Frantziskon egindako bilkuran, www.indymedia.org domeinua erosi zuten. Orduz geroztik, tokian tokiko dozenaka Indymedia sortu dira mundu osoan.

Horietako bat Indymedia Euskal Herria da (<http://euskalherria.indymedia.org>). 2002ko ekainean sortu zen. Europako Indymedia sarea osatzen zuten herrialdeak eta kide izan nahi zutenak Berlinen bildu ziren urte hasieran, eta orduan onartu zuten Euskal Herriko Indymedia nazioarteko sarean sartzea. Leioan (Bizkaia) egindako Hackmeeting topaketetan parte hartu zuten internautek luzatu zuten eskaera. Globalizazioaren aurkako gizarte eragileen informazioa biltzea du xede, baina bere



Guneak globalizazioaren aurkako
gizarte eragileen informazioa
biltzea du xede, baina bere
asmoak askoz zabalagoak dira

asmoak askoz ere zabalagoak dira. Marko Txopitea Txopitea Indymediako kideak eman digu helburu horien berri. Dena den, argi utzi nahi izan du Indymedian iritzi desberdineko jendeak parte hartzen duela, eta ARGIAren galderei bere izenean erantzun diela, “ez kolektibo osoaren izenean”. Helburue-tako bat “jendeak nahi duena esateko eskubidea bermatzea” dela esan digu: “Hedabide korporatiboetan, gauza bat dela beste delarik –dirua, gobernuen itzala–, filtro batzuk daude; Indymediako web guneetan argitaratzeko irekiaren printzipioa aplikatzen da, erabiltzai-

Marko Txopitea, Indymediako kidea

“Anonimo batek ezagun batek baino askoz egia handiagoak esan ditzake”

Informazioa bidaltzen duen jendearen anonimotasuna aitzakia gisa erabilia, batzuek diote ez dela sinesgarritasuna bermatzen.

Hori antzinako pentsamendua da. Enpresa edo gobernu jakin batek esaten duenak sinesgarritasun handiagoa du beste edonork esandakoak baino? Anonimo batek esan ditzake askoz egia handiagoak pertsona ezagun batek baino. Guk horretan malgutatsun handia dugu. Ni ziur nago Indymedian politika kontuez-eta hitz egiten duten pertsona batzuk oso ezagunak direla. Anonimotasunari ez diogu ikararik izan behar, askotan onuragarria da”.

Hala ere, anonimotasunaren babesean, jendeak edozer astakeria esan dezake. Informazioaren gainean nolabaiteko kontrolik badago?

Kontrol minimoa dago. Jendeak bidaltzen duena zuzenean argitaratzen da, ez du inork onartu behar. Baina mezuek irainak edo mehatxuak jasotzen dituztela ikusiz gero, kendu egiten ditugu. Badugu talde editorial bat eta hor erabakitzen dugu horrelako

mezuekin zer egin behar den.

Eta arazorik izan duzue inoiz?

Hasieran arazo gehiago izango genituela pentsatzen genuen. Indymedian “Euskal Herria” moduan agertu nahi genuen eta ez ziguten trabarik jarri. Gatazka politikoa-eta, badakizu... Azkenean eztabaida sutsuenak Aralar eta Batasunaren arteko tira-biren inguruan sortu dira. Alemanian bai, arazoak izan dituzte naziekin; eta Italian Berlusconi zerbitzaria kendu zien. FBIk ere duela urte batzuk zerbitzari bat itxi zuen.

Behin izan genuen arazotxo bat eraikuntza-enpresa batekin. Erabiltzaile batzuek Indymedian artikulua bat idatzi zuten, enpresa horrek ziria sartu ziela eta protesta moduan web gune bat sortu zutela jakinarazteko. Beranduago enpresaren mezua jaso genuen. Erabiltzaile horiek gezurretan ari zirela esan eta albistea kentzeko eskatu ziguten. Nik ezagutzen ditut Euskal Herriko hedabide batzuk (Sustatu, adibidez) artikulua kenduko luketenak. Guk ez genuen egin.

leek nahi dutena esaten dute, ez dugu ezer moztzen”.

Hedabide Independenteen Gunea globalizazioaren aurkako jendeak sortu zuen arren, orotariko gaiak jorratzen dituzte: okupazioa, antimilitarismoa, ekologia, euskara, immigrazioa, internazionalismoa, sexua... Izan Euskal Herriko kontuak zein gure mugez kanpokoak. Txopik dioten moduan, “web gunea ez da globalizazioaren aurkako erantzuna; guztia batzen duen zerbait da, *kontrainformazioa* deiturikoaren barruan dago”. Berak, ordea, hitz hori ez du gustuko: “Guk *media-aktibismoa* terminoa erabiltzen dugu. Informatzen ari gara. Hedabide korporatiboei egiten dutena ez zaigu axola. Ez ditugu egiak zabaltzen besteek gezurra esaten dutelako. Herritarrek web gune hau edozeri buruz hitz egiteko eta informazioa jasotzeko erabiltzea besterik ez dugu nahi”. Globalizazioaren leloa bere egin du Euskal Herriko Indymediak: “Think globaly, act locally” (Pentsatu globalki, ekin lokalki). Printzipio hori maila guztietan aplikatzen dute. Latinoamerikako Indymedia guneek, adibidez, laguntza teknikoa behar izaten dute, euren ziberretan ez dute konexiorik, ezin dute zerbitzaria ordaindu... eta denen artean laguntzen diete. “Sare bat gara”, dio Txopik.

Copyleft teoria ardatz

Indymedian informazioa sareratu nahi duenak “Argitaratu” botoia sakatu eta formula-



2003an, Indymediaren lehen urteurrena ospatzeko Bilbon egindako Kale-Hacking ekimena.

ria betetzea besterik ez du. Kontuan har dezala, dena den, Word dokumenturik adibidez ezingo duela igorri. Pdf-ak ordea bai. Indymediak ez ditu formatu pribatuko dokumentuak onartzen. Software askearekin egiten dute lan, eta copyleft lizentziarekin. Jendeak internetez gauzak zabaltzea dute xede, “mugak jartzeak ez du zentzurik”. Interneten mugak desagertu egiten dira, eta edonork zabal ditzake hedabide handien kontroletik ihes egiten duten albisteak. Hori da helburua, *mass-media* horien oinetara ez belaunikatu eta eduki propioak sortzea. Indymediaren leloak dioten bezala, *Don't hate the media, be the media*. Ez itzazu hedabideak gorrotatu, zu zeu izan hedabidea. ■

